

## ADELANTE EL RECURSO CONTRA LAS NNSS LOS TESTIGOS CONFIRMAN LAS IRREGULARIDADES DEL TRÁMITE

El pasado 15 de diciembre se celebró el interrogatorio a las personas citadas como testigos en el proceso judicial que la Asociación lleva en relación a las nuevas Normas Subsidiarias.

Aunque los demandados eran la Diputación y el Ayuntamiento de Lezama sólo se presentó la representación de la Diputación ante la sorpresa de todos los presentes.

Comparecieron como testigos la Arquitecta responsable técnica de las Normas, la representante de la empresa que realizó el Estudio de Impacto Ambiental y el responsable de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

En las tres horas que duraron los testimonios varias cosas quedaron claras:

1-Toda la tramitación de las Normas, desde el mismo Avance, hasta el llamado "Texto Refundido", se ha realizado cometiendo numerosas irregularidades:

- Se presentó a las administraciones un Avance distinto al aprobado por el Ayuntamiento.
- La normativa hidráulica vigente se ha burlado con un estudio "ad hoc" presentado por el Ayuntamiento al margen del trámite, sin exposición pública, para posibilitar construir pisos en suelos inundables.
- El Texto Refundido no se ha remitido a la Comisión de Ordenación Territorial del País Vasco, ni ha sido evaluado medioambientalmente, a pesar de contener modificaciones sustanciales..

2-La calificación industrial de casi 60 Ha en Aretxalde en estos ocho años, serían el principio de las 120Ha que indica el PTP para 16 años y perjudicaría gravemente la actual estructura socioeconómica y medio ambiental de Lezama.

Al respecto dos constataciones:

- No hay razones objetivas que justifiquen esta industrialización. (ninguno de los testigos dijo conocer proyecto concreto alguno para ocupar lo que ahora son suelos rurales)
- El Ayuntamiento ha rechazado las oportunidades que ha tenido para rebajar la calificación industrial. La arquitecta dijo que el Ayuntamiento "decidió" no contestar la propuesta de Diputación en este sentido.

Así pues sigue por buen camino el recurso.

El siguiente paso será pedir la suspensión cautelar de la aplicación de las normas recientemente aprobadas hasta que se produzca la sentencia, cosa que esperamos que se produzca durante el 2009.

Informaremos puntualmente.



# EL CAMPO DE TIRO CERRADO ERREKATXU BIZIRIK! UN PASO POR LA CALIDAD DE VIDA Y LA CONVIVENCIA EN LEZAMA

Tras más de un año de trabajo por parte de la Asociación, "alguien" ha convencido a la alcaldesa de que las instalaciones de tiro al plato estaban en situación ilegal. Y las ha cerrado.

Hasta aquí todo normal. Es más, lo lógico es que las hubiera cerrado mucho antes. Precisamente otras administraciones, entre ellas la de Justicia, están investigando por qué los responsables municipales han permitido durante 22 años tantas irregularidades. Y puede que les pida responsabilidades, incluso penales. Ya se verá.

Así pues, respecto al campo de tiro, la alcaldesa ha sido la primera responsable municipal en 22 años que ha hecho lo que debía. Más vale tarde que nunca.

Nadie, sea quien sea, tiene derecho a molestar ni a perjudicar la salud de sus vecinos, ni a contaminar el medio ambiente, incluso saltándose las escasas limitaciones que impone la ley. Desgraciadamente todavía hay quien no entiende algo tan elemental y se ha enfadado mucho con esto del cierre.

Y así resulta que el "*Lezamako Buru Batzar*" ha escrito por primera vez sobre el tema y ha metido la pata hasta el zancarrón. Dicen que es una "*comunicación en relación al campo de tiro*" y luego sólo se dedican a emprenderla sin ton ni son contra Lezama Bizirik. Que si está "*liderada*" por exconcejales de la izquierda radical (cosa terrible debe ser), que si queremos impedir la convivencia,... En fin, un disparate tras otro. Siempre se ha dicho que la ignorancia es atrevida. Mal les irá sin en otros temas no van con un poco más de información y de educación.

A Lezama Bizirik le avala su trabajo, no tenemos que dar explicaciones a nadie por intentar mejorar la calidad de vida y el medio ambiente en nuestra casa, sólo faltaría. Nos aburre este tema pero se lo decimos otra vez y por escrito: en la asociación hay personas de todas las tendencias, también del PNV, como es normal en una Asociación Vecinal.

En su obcecación no se dan cuenta que insultan a los cazadores honestos. Tener una licencia de caza no quiere decir que te de igual que contaminen tu pueblo y se incumpla la legalidad medioambiental. Claro que hay socios en Lezama Bizirik con licencia de caza, y varios. Pero primero son vecinos, que quieren lo mejor para su pueblo, y luego cazadores.

Los de *Buru Batzar* acaban diciendo que "*estamos de acuerdo con que se cierren las instalaciones*". Sin fuesen sinceros no se hubieran atrevido a decir tantas tonterías y a poner en peligro, ellos sí, la convivencia en el pueblo, dando nombres e información totalmente falsa.

Si es verdad que quieren trabajar por la convivencia y el medio ambiente seguro que nos vamos a ver mucho de ahora en adelante. Podríamos empezar por ver cómo podemos sacar de Errekatzu las toneladas de basura contaminante que se han acumulado en estos años y que ahí siguen, para quien quiera comprobarlo. Aquí sería bueno aplicar lo que continuamente repite el Gobierno Vasco: "*el que contamina paga*".

Y lo importante: enhorabuena a vecinos y vecinas. Desde el día 16 de diciembre de 2008 Lezama es un poco más habitable y saludable, en todos los sentidos y pese a quien pese. Para quién albergue alguna duda ya le adelantamos que el cierre, al menos en ese lugar, es definitivo e irreversible.

Lezama Bizirik se congratula con todos y todas y seguirá en su trabajo por el futuro de Lezama y la calidad de vida de los lezamarras.



 Lezama Bizirik

## TIRO ZELAIA ITXITA ERREKATXU BIZIRIK!

### BIZI KALITATE ETA ELKARBIZITZAREN ALDE AURRERA PAUSUA LEZAMAN

Elkarteak urte betetik gora egindako lanaren ostean, "norbaitek" sinestarazi dio alkatesari tiro zelaiko instalazioak egoera ilegalean zeudela. Eta itxi egin ditu.

Honaino guztia normal, zentzudunena askoz lehenago ixtea izango litzatekeen arren. Izan ere, beste administrazio batzuk, justiziakoa tartean, ikertzen ari dira zergatik baimendu duten 22 urtean udal arduradunek hainbeste irregulartasun. Eta posible da erantzukizunak eskatzea, penalak barne.

Horrela, tiro zelaiari dagokionez, alkatesa izan da 22 urtean egin behar zena egin duen lehen udal arduraduna. Berandu baina tira, eginda.

Inork ez du eskubiderik, edozein izanik ere, auzokideak molestatu eta hauen osasuna kaltetzeko, ez eta ingurumena kutsatzeko, legeak ezarritako berme eskasak kontuan hartu gabe gainera. Zoritxarrez, oraindik badago hain oinarrizkoa den hau ulertzen ez duena eta asko haserretu omen da itxieraren kontu honekin.

Hara non idazten duen "Lezamako Buru Batzarrak" gai honen inguruan lehen aldiz, eta barru barruraino hanka sartu. "Tiro zelaiaren inguruko oharra" dela diote eta, aldiz, beste barik Lezama Biziriken kontrako idazki baten aurrean aurkitzen gara; ezker erradikaleko zinegotzi ohiek "lideratuta" dagoela (zelako beldurra!), elkarbizitza oztopatu nahi dugula, ... ez hanka ez buru, zentzugabekeria bat bestearen atzetik. Beti esan izan da ezjakintasuna oso ausarta dela. Edozein gaietan informazio eta edukazio gehiagoz jokatzeko ez badute ez dira lar ondo ibiliko.

Lezama Bizirikek bere lana du ezaugarri nagusia. Ez diogu zertan inori azalpenik eman behar gure etxean ingurumenaren eta bizitza kalitatearen aldeko lanetan aritzeagatik, falta zena. Gai honek aspertuta gauzka baina berriz ere esango dugu, oraingoan idatziz: elkartea joera politiko desberdinetako kideok osatzen dugu, PNVkoak barne, normala den moduan auzo elkarrekin.

Itxututa egonik, ezin konturatu ehiztari zintzoak ere mintzen dituztela. Ehizarako baimena izateak ez du esan nahi zure herria kutsatzea inporta ez zaizunik eta ingurumen araudia betetzeko prest ez zaudenik. Bai, badaude Lezama Biziriken ehizarako baimena duten bazkideak, eta bat baino gehiago. Baina lehenik eta behin auzokide dira, herriarentzat onena nahi dutenak, ondoren ehiztari.

Buru Batzarrekoak "instalazioak ixtearekin ados gaude" esanez bukatzen dute. Zintzoak izango balira ez lirateke ausartuko horrelako lelokeriak esan eta herriko elkarbizitza, beraiek bai, arriskuan jartzera, guztiz faltsua diren informazio eta izenak argitaratuz.

Egia bada elkarbizitzaren eta ingurumenaren alde lan egiteko borondatea daukatela ziur sarriago ikusiko garela hemendik aurrera. Errekatxun urteetan pilatzen joan diren eta bertan jarrailuz duten hondakin kutsagarri tonak nola atera pentsatzen has gaitzake. Ondo legoke ezartzea hemen Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro esaten diguna: "Kutsatzen duenak ordaindu behar du".

Eta inportanteena: zorionak auzokide gutioi. 2008ko abenduaren 16tik Lezama egokixeagoa eta osasungarriagoa da bizitzeko. Eta dudaren bat gelditu zaionari baieztatzen diogu itxiera behin betikoa eta atzerazina dela, leku horretan behintzat.

Lezama Bizirikek, guztiokin batera atsegin handiz, Lezamaren etorkizunaren eta lezamarren bizi kalitatearen aldeko lanean jarraituko du.





# Lezama Bizirik

---

## JAI BATZORDEKO JARDUERA ETA ALKATESA: AZALPENA

Urriko boletinean , jaietako pregoiaren inguruan gora beherak izan zirela eta oso gogor kritikatu genuen Alkatesaren jarrera.

Guk orduan idatzitakoa Jai Batzordeko kideengandik jasotako informazioan oinarrituta zegoen, ez genuen besterik.

Orain , Jai Batzordearekin bildu eta gero, beraiek pasatutako informazioa guztiz zuzena ez zela eta txarto ulertzeak egon zirela adierazi digute. Era berean Alkatesaren aldetik jai Batzordearen jardueran eskua sartzeko asmorik ez dagola adierazi digute.

Gu Jai Batzordeak emandako azalpenarekin konforme gelditu eta ohar hau argitaratzeko konprometitu gara , inor kaltetua senti ez dadin, batez be alkatesa.

Txarto ulertzeek ez ditzaten alperrik mingozten Udala eta Elkarteen arteko harremanak.



# Lezama Bizirik

---

## LEZURMENDIKO ARDURADUNEEI

Ehiza Elkarteko arduradunek egindako orriari ez diogu erantzungo. Ez dugu giroa kaskartzen lagundu nahi . Gainera badakigu Lezurmendiko bazkide askok ez duela orrian jarritakoarekin bat egiten. Badakite ez daukagula ezer jarduera horren kontra, beti ere ezarritako ingurumen mugen barruan egiten bada.

Guztiok jakin ezazuen bai esan, Lezama Bizirik ikerketak hasi zituenean, orain urte bete baino gehiago, tiro zelaia gaia tratatzeko batzarra eskatu ziela eta bertako arduradunek ez zutela inondik inora onartu.

Tiro zelaiko gaia zorionez igarota, edozertaz hitz egin nahi badute, beti ere elkarrenganako errespetuan eta herriaren hobekuntzan oinarrituz, prest gaituzte..



# Lezama Bizirik

---

### **Defendatu Lezama gurekin, bazkide egin zaitetz!**

Izena:.....  
Abizenak:.....  
E-posta:.....  
Helbidea:.....  
Herria:..... Tfno:.....

Enviar a [lezamabizirik@lezamabizirik.com](mailto:lezamabizirik@lezamabizirik.com)  
Depositari en el buzón de Zorritzketan, Aretxalde nº1 Ayuntamiento